



Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

MEMORIA

2016



KONFEKOOP



KONFEKOOP

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

Orr.

GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA	7
SARRERA	13
1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK.....	18
1.1. ERKIDE – Euskadiko Lan, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa	18
1.2. ENKF - Euskadiko Nekazaritza-elikagaien Kooperatiben Federazioa	21
1.3. EGKF - Euskadiko Garraiolarien Kooperatiben Federazioa	23
2. EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN.....	24
EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREFORMA.....	24
3. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK	25
3.1. ELKAR-LAN KOOP. E. - Kooperatibak Sustatzeko Sozietatea	25
3.2. OINARRI EBS - Elkarren Bemerako Sozietatea.....	25
4. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK.....	27
4.1. EKGK – Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua	27
4.2. NAK - Nazioarteko Kooperatiba Aliantza	27
4.3. EGES - Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea	28
4.4. ETESS PROIEKTUA - Gizarte Ekonomiaren Mugaz Gaindiko Eskola	28
5. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK.....	30
5.1. EGK - Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	30
5.2. GZEK – Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua	31
5.3. ISEK - Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua	33
5.4. GEK – Gizarteratzeko Euskal Kontseilua	33
5.5. ENK - Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua.....	34
5.6. GAEK - Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua.....	34
5.7. FEK – Familiaren Euskal Kontseilua.....	34
5.8. OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.....	35
5.9. KONTSUMOBIDE – Kontsumoko Euskal Institutua.....	36
5.10. EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundea.....	37
5.11. Euskadiko immigranteen integrazio eta partaidetzarako foroa.....	38
6. KOMUNIKAZIOA.....	39
6.1. WEBGUNEA: www.konfekoop.coop	39
6.2. FOROKOOP – Kooperatiba-Eztabaidarako Foroa.....	39
6.3. “Kooperatiba-enpresa” saiola Onda Vasca - Herri Irratian.....	40
6.4. Beste hainbat hedabide.....	40
7. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK	41
7.1. EGE – Enpresen Gizarte Erantzukizuna.....	41
7.2. Jarduerak Euskararen esparruan	41
7.3. KNE - Kooperatiben Nazioarteko Eguna	42
7.4. GEEB - Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia	43
7.5. Innobasque.....	43

7.6. Kooperatiben Nazioarteko Goi-bilera	43
8. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK.....	44
8.1. OINARRI E.B.S	44
8.2. GARLAN, KOOP.E.....	44
8.3. ALECOP, KOOP.E.	44
8.4. EUSKALTEL.....	44
8.5. IMQ – Igualatorio Médico Quirúrgico	44
8.6. Parte-hartzea hainbat ekitalditan.....	45
8.7. Lankidetzak Mundukiderekin.....	46
IKUSKATUTAKO KONTUAK.....	49



KONFEKOOP



KONFEKOOP

GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA



KONFEKOOP

GIZARTE ORGANOAK

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

2016.12.31n

PRESIDENTEA:

Rosa Lavín Ibarra

ERKIDE

PRESIDENTEORDEA:

Patxi Olabarria Furundarena

ERKIDE

IDAZKARIA:

Pablo Durana Duque

ENKF

KONTSEILARIAK:

Eduardo Fernandez Bodegas

ERKIDE

Elena Gabilondo Mugarza

ERKIDE

Mikel Larrea Azpeitia

ERKIDE

Iñaki Peña Gómez

ERKIDE

Iñigo Querejeta Merino

ERKIDE

Jon Andoni Ruiz de Zarate Agirrezabalaga

ERKIDE

Juan Bautista Jauregi Iztueta

ENKF

Martin Uriarte Zugazabeitia

ENKF

Gonzalo Saez de Ibarra Mtz. de Estarrona

EGKF

KOOPERATIBEN ERROLDA

2016ko abenduaren 31n **federatutako kooperatibak 1.110** dira; Kooperatiben Erregistroan 1.926 Koop. E. eta 1.000 Koop. E. Txiki daude:

➤ Kooperatiba motaren arabera:	<i>(Koop. Erreg.)</i>
▪ Lan Elkartek.....	949..... 1.141+1.000
▪ Irakaskuntza	82.....97
▪ Nekazaritza	64.....118
▪ Kontsumoa	8.....36
▪ Garraiolariak	6.....43
▪ Kreditua.....	1.....1
▪ Etxebizitza396
▪ Beste batzuk.....94
➤ Probintziaren arabera:	
▪ Araba	171
▪ Bizkaia	479
▪ Gipuzkoa	460
➤ Ekoizpen-sektorearen arabera:	
▪ Lehen sektorea edo zuzeneko produktua	17
▪ Bigarren sektorea edo eraldaketa	448
▪ Hirugarren sektorea edo zerbitzuak	645
❖ Bazkideak guztira.....	1.173.837
➤ Nekazariak.....	9.955
➤ Lan Elkarreetakoak	33.812
➤ Kontsumokoak	1.070.413
➤ Kreditukoak	10.484
➤ Gurasoak	49.173
❖ Langileak guztira.....	53.496
▪ Lan-bazkideak	33.812
▪ Bazkide ez diren langileak.....	19.684
▪ Gizonak	25.571
▪ Emakumeak	27.925
❖ Fakturazioa.....	9.182 ₁ €
❖ Nazioartekotzea	4.628 ₁ €

1. Lehen sektorea.....17	2. Bigarren sektorea 448	3. Hirugarren sektorea645
1.1. Nekazaritza12	2.1. Eraikuntza 123	3.1. Merkataritza99
1.2. Basogintza1	2.2. Energia..... 3	3.2. Aholkularitza69
1.3. Abeltzaintza4	2.3. Kontsumoko ondasunen fabrikazioa 26	3.3. Hezkuntza eta prestakuntza104
1.4. Meatzaritza0	2.4. Elikagai-industria 55	3.4. Finantzak1
1.5. Arrantza0	2.5. Arte Grafikoen industria..... 27	3.5. Ostalaritza..... 32
	2.6. Artisautza 3	3.6. Informazioa eta komunikazioa ..34
	2.7. Automobilgintza 28	3.7. Informatika eta teknologia28
	2.8. Kautxu eta plastikoaren industria 10	3.8. Instalazioak eta konponketak36
	2.9. Industria elektronikoa 46	3.9. Garbiketa6
	2.10. Zur-industria 17	3.10. Ingurumena eta lorezaintza20
	2.11. Makina-erremintaren industria.. 35	3.11. Aisia eta kultura 34
	2.12. Birziklatzearen industria..... 10	3.12. Osasuna eta mendekotasuna34
	2.13. Sidero-metalurgia industria 57	3.13. Aseguruak0
	2.14. Ehungintza 8	3.14. Hizkuntza zerbitzuak 11
		3.15. Enpresentzako zerbitzuak41
		3.16. Sozialak21
		3.17. Garraioa eta banaketa 60
		3.18. Turismoa 15



KONFEKOOP



KONFEKOOP

SARRERA

Kontseilari lagun agurgarriak,

Beste urte batez, memoria honek elkartzeko aitzakia eman digu. Atzera begiratu eta esan dezakegu 2016a, hainbat lan-arlotan, urte kontinuista izan dela KONFEKOOPentzat, nahiz eta erronka berriren bat ere egon den beste esparru batzuetan, segidan azalduko dizuedan moduan. KONFEKOOPEK gizartearen hainbat esparrutan egiten duen ordezkartza-lan instituzionalaz gain, hala Euskadin nola estatuan, urrian Quebecen egin zen Kooperatiben Nazioarteko III. Goi-bileran euskal kooperatibek izan zuten parte-hartze nabarmena azpimarratu nahi dut, bai bertaratutako ordezkartzari zein agerraldien programari dagokionez. Euskal Kooperatiben Mugimendua inspirazio-iturri handi bat da, eta hala erakutsi zuen goi-bilera honetan.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Mugaz Gaindiko Eskolaren ETESS Proiektua da dedikazio handiz landu den beste proiektuetako bat. Aurretik eman zen lankidetzeta batetik eta bere bazkideen arteko sinergiatik jaio da, hau da: ANEL Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarteak gidaritzan eta, harekin batera, Hendaiako Udala, Bassin d'Emploi du Seignanx komitea eta KONFEKOOP. Gizarte Ekonomian lankidetzan aritzeko Mugaz gaindiko Eskola bat sortzea eta finkatzea du helburu, Nafarroa, Euskadi eta Pirinio Atlantikoetako tokiko eragileek osatuko dutena.

2016an bada nabarmentzeko beste gertakari bat ere: iraileko hauteskunde-prozesuaren ondoren eratu den ordena politiko berria. Horren ondorioz, kooperatiben mugimenduaren funtsezko gaiekin eta bereziki kooperatibekin eta bertako langileekin harreman estu eta berezia daukaten Eusko Jaurlaritzako sailletako ordezkari berriekin harremanetan jarri eta haiengana hurbiltzeko saioei ekin behar izan diegu. 2016aren amaieran abian jarri genuen ekimen hori, eta 2017ko lehenengo hiruhilekoa amaitu.

Agur hau bukatu aurretik, KONFEKOOPEN lan egiten duten eta haren ordezkari diren eta Federazioak osatzen dituzten lagunei nire esker ona helarazi nahi diet, kooperatiben eguneroko lanaren gidari eta laguntzaile baitira. Haien denak gure akuilu dira kooperatiba eta pertsona gehiago erakarri eta EKMa bultzatzen segitzeko bidean.

Eskerrik asko bihotzez denoi,

ROSA LAVÍN IBARRA
KONFEKOOPEKO PRESIDENTEA

SARRERA

Espainiako ekonomia %3,2 hazi da 2016an, kanpo-sektorearen ekarpen handiago bati esker, barne-eskariaren atzeraldia orekatzeko balio izan duena. Horrenbestez, eurogunea baino ia bi aldiz gehiago hazi da. EAEn hazkundea ere antzekoa izan da, hamarren bat gutxiago, %3,1.

Berreskurapenaren oinarriek bere horretan dira, eta enpresen finantza-egoera eta lehiakortasuna ere ez dira aldatu. Horri esker, inbertsio eta esportazio aukerak aprobetxatzeko moduan daude.

Hala ere, 2017ari begira, gutxi gorabehera %2,4ko atzeraldia emateko faktoreak hautematen dira, besteak beste, arrazoi hauengatik: petrolioaren garestitzea LPEEn barruko akordioaren ondorioz, inflazioaren gorakada eta kontsumitzaileen erosahalmenaren murrizketa. Horrez gain, litekeena da ekipo-ondasunen inbertsioa gutxiago haztea 2016an.

Ekitaldiaren amaieran, langabezia-tasa oso maila altuetan zegoen oraindik, %18,6an.

EAEn, tasa hori askoz txikiagoa da, %12,2koa hain zuzen ere. Hortaz, azken urtean, lanaldi osoko 16.000 lanpostu baino gehiago sortu dira, baina oraindik langabezia-tasa nahiko altua da, hainbeste non oraindik hura murriztea baiten politika publikoen helburu nagusia.

EAEko langabeziaren bilakaeraren ezaugarri garrantzitsuenetako bat eraikuntza-sektorearen norabide aldaketa izan zen. Zortzi urte eta erdi etengabe jaisten egon ondoren, 2016ko azken hiruhilekoan urte arteko %0,5eko aldaketa-tasa lortu zuen. Lehenengo sektoreak ere lagundu zuen enplegua sortzen, nahiz eta bere bilakaera-profila oso murrizta den.

Industria-sektoreko enpleguaren bilakaera positiboa izan zen 2016. urte osoan, nahiz eta, beste behin ere, enplegu kopuru garbi gehiena zerbitzuko jarduerekin lotutakoa izan zen.

Bestalde, eta goian aipatutakoarekin bat etorritik, Euskadin Gizarte Segurantzaren afiliazioaren dinamismoa ez da eten, eta dagoeneko emakumeak afiliatutako pertsona guztien %47 dira.

Testuinguru horretan jardun du KONFEKOOPek Euskadiko kooperatibak erakundeen aurrean ordezkatzeko, erakunde publikoetan haien presentzia sustatzen eta euskal gizartean kooperatibismoa bultzatzen eta zabaltzen.



EUSKOOP

KONFEKOOP

2016ko Memoria honetan, helburu horiekin egindako lanen xehetasun guztiak jaso ditugu. Jarduera hauek guztiak gai eta esparru desberdinak jorratu dituzte, besteak beste honako hauek: ordezkaritza instituzionala, finantzaketa, ekintzailletza kooperatiboa, Europako programen garapena, elkar-lankidetzak euskal gizarte-ekonomiako beste familiekin, enpresen gizarte-erantzukizuna eta euskararen erabileraren normalizazioa kooperatibetan.

Ekintza huen guztien xedea bat eta bakarra izan da: euskal kooperatibismoa etorkizunera begira jartzea, maila ekonomikoa eta soziala modu paraleloan haziko diren etorkizun batera.

- 1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK**
- 2. EGITASMO ETA LANKIDETZA-HITZARMENA BERRESKURATZEA**
- 3. LEGEGINTZA ETA ARAUGINTZA PROZESUAK**
- 4. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK**
- 5. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK**
- 6. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK**
- 7. KOMUNIKAZIOA**
- 8. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK**
- 9. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK**

1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK

1.1. ERKIDE – EUSKADIKO LAN, IRAKASKUNTZA, KONTSUMO ETA KREDITU KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

2016ean, ERKID EK jarduera ugari garatu ditu, eta atal honetan lan horien guztien laburpena jaso dugu, jarduera-ildotan banatuta.

A. Enpresa-esparrua

- ERKID Eren bazkide egin ziren Kooperatibek OINARRIREN “bazkide partaide” gisa alta emateko izan zuten kostua bere gain hartu du, haren zerbitzuak eskuratzeko aukera izan dezaten.
- SAIOLANEN parte-hartze handia izan du, bazkide akziodun den heinean. SAIOLANEK 15 enpresa-jarduera berri sortu ditu, horietako 5 martxan zeuden kooperatiben negozio-ildo berriak, eta 21 bideragarritasun-azterketa prestatu ditu.
- Finantza-erakundeekin (LABORAL KUTXAREKIN eta Nafarroako Rural Kutxarekin) sinaturiko lehentasunezko lankidetzak hitzarmenak kudeatu ditu.
- Aginte-mahai integral bat ezartzeko programa bat garatu du 19 kooperatibatan.
- Gaur egungo egoera ekonomikoa aztertzeko jardunaldi bat antolatu du, 2016ko Batzar Nagusiaren barruan egin zena, 264 pertsonaren parte-hartzearekin.
- Federatutako kooperatiben arteko merkataritza-trukeen atariaren kudeaketa egin du. Merka ERKIDE izeneko atari horretan 359 kooperatibak haien produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta 614 enpresa erosle homologatuta daude.
- Lankidetzan aritu da Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan, MUREKIN txandakatuz.
- SEED CAPITAL BIZKAIA eta HAZIBIDE arrisku-kapitaleko sozietateetan parte hartu du.
- BATERATZEN (pertsonak eta kooperatiben beharrian estrategikoak lerrokatuz) programa garatu du 14 kooperatibatan.
- BERPIZITU izeneko programa bat garatu du 15 kooperatibatan, eskaintza arteztu eta berritzeko.

B. Prestakuntza

- Kooperatiba-enpresen Kudeaketarako masterra. 15 zuzendarik hartu zuten parte.
- Bazkide langileentzako 2 ikastaro, kooperatiben arloko prestakuntza jasotzeko. 56 bazkide-langilek hartu zuten parte.

- Artezkaritza Kontseiluko kideentzako 2 prestakuntza-ikastaro. 66 kontseilarik hartu zuten parte.
- Zaintza-batzordearentzako prestakuntza-ikastaro bat, kooperatiba-gaien eta funtzioen ingurukoa. Organo horretako 26 kidek hartu zuten parte.
- Sozietateen zergaren prestaketari buruzko jardunaldi praktikoa bat. Kooperatibetako finantza-arloetako 50 ardura dunek parte hartu zuten.
- Bilera eraginkorrak egiteko moduari buruzko jardunaldi bat, 54 zuzendariren parte-hartzearekin.
- Norbere produktibitatea hobetzeko jardunaldia, 18 erdi-mailako arduradunen parte-hartzearekin.
- Ordainsari aldakorreko sistemei buruzko tailerra, 28 zuzendariren parte-hartzearekin.
- Euskarri informatikoak erabiltzeko prestakuntza-ikastaroa. 132 bazkide langilek parte hartu zuten.

C. Informazioa

- ERKIDek 41 zirkular igorri dizkie federatutako kooperatibei.
- Teknikariak federatutako 34 kooperatiba bisitatu dituzte, haien kezkek bertatik bera ezagutzeko helburuarekin.

D. Kooperatiben sustapena

- 153 kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu duen ELKAR-LANI laguntza handia eman dio.
- Federazioaren irudia sendotzeko, kanpaina zabala garatu du hedabideen aurrean, batez ere irratian.
- 11.500 pertsonaren artean banatzen den KOOP-Euskal Enpresa Kooperatiboa aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditu.
- Marketin online kanpaina bat burutu du, batez ere ERKIDEREN webgunearen bidez. Guztira, 118.795 orrialde bisitatu dituzten 29.829 bisitari izan ditu.
- Mailegu pertsonalen arloan, euskal kreditu-kooperatibekin hitzarmena sinatu du. 43 bazkide-langilek erabili dute hitzarmen hori.
- LABORAL KUTXAREKIN, SPRIREKIN eta MICHELINEKIN lankidetzan, Arabako Enpresa solidarioarentzako XVI. Urrezko Dato saria antolatu du. Enpresa irabazlea ELECTRO ALAVESA izan zen.
- Kooperatibismoa sustatzeko kanpaina 40 ikastetxetan.
- ERKIDEREN 2016ko Gizarte Balantzea prestatu du.

E. Zerbitzuak

- 1.094 kasuren inguruko kontsultak jaso ditu edo aholkularitza eskaini du.
- Merkataritza-informazioko eta kredituko zerbitzuak 18 txosten laga ditu.
- ERKIDERen bazkide diren Kooperatiben Aholkularitzekin lankidetzeta-hitza mena kudeatu du. Aholkularitza horiek 7 kooperatiba eratzeko laguntza eman dute.
- Kontabilitate-itxierari buruzko mintegi bat antolatu du, eta federatutako kooperatibetako 48 arduradunek parte hartu dute.
- "Nortasun eta Ospe digitalari" buruzko tailer bat antolatu zuen, 25 pertsonaren parte-hartzearekin.
- Estatutu sozialak edo barne-araudia idatzi edo aldatzeko laguntza eskaini die 13 kooperatibari.
- Zuzendarien Datu-basean 884 zuzendari daude.
- "Estresa eta Osasunari" buruzko jardunaldi bat antolatu zuen, eta laneko segurtasun eta prebentzioaren arloko 18 arduradunek parte hartu zuten.
- ELKAR-EUSKARA hizkuntza-arloko laguntza-zerbitzua handitu du, eta dagoeneko 108 dira federatutako kooperatiba parte-hartzaileak.
- Lan-baldintzak eta prebentzioa hobetzeko prestakuntza-kanpaina bat garatu du, 74 kooperatibistarengana iritsi dena.

F. Federazioen errolda

- 2016ko ekitaldian, 61 kooperatibaren hazkunde garbia eman da (160 Kooperatibaren alta eta 99 Kooperatibaren baja).

G. Irakaskuntzako kooperatiben elkarte sektoriala

- Bidaia bat egin da Bartzelonara, 61 parte-hartzailearekin, estatuko hezkuntza-zentroetako esperientziak eta errealitateak bertatik bertara ezagutzeko.
- Pertsonak kudeatzeko bi ikastaro egin ziren: "*Talde coachinga*" 40 parte-hartzailearekin, eta "*Sormena eta berrikuntza*" 28 parte-hartzailearekin.
- Barne-araudia ezartzeko beharrezkoa den aholkularitza-lana eskaini zuen Irakaskuntzako 2 kooperatibatan.
- "Zuzenbidea Irakaskuntzako Zentro Kooperatiboetan" gaiari buruzko lana egin du, 57 lagunaren parte-hartzearekin.
- "Irakaskuntzako Kooperatibetako Artekari Kontseiluentzako prestakuntza" izeneko jardunaldia egin zuen, eta 33 pertsonak parte hartu zuten.
- "Sozietate-lanaren ondoriozko betebeharrak administratiboak" izeneko jardunaldia antolatu zuen, 30 pertsonaren parte-hartzearekin.

H. Kontsumo kooperatiben elkarte sektoriala

- Elkarte sektoriala ofizialki eratu da, eta 2017rako helburuak eta jarduerak onartu dira.
- "Ondasun Komunaren Ekonomia" gaiari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen, 97 parte-hartzailerekin.
- "Aldaketaren ahalmen positiboa autogestio-ingurune batean" gaiari buruzko jardunaldia antolatu zuen, 110 pertsonaren parte-hartzearekin.
- HISPACOOPEN bidez, kontsumitzaileentzako informazio-kanpaina nutrizionaletan, "Bizitza osasuntsuaren ohiturak" azterketan eta "Etxeko hondakinen eta elikagaien kudeaketa" gaiari buruzko azterketan parte hartu du.

1.2. ENKF - EUSKADIKO NEKAZARITZA-ELIKAGAIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

A. Ordezkaritza instituzionala

ENKFK nekazaritzako elikagaien sektorea garatzeko lan egin du, eragile politiko, ekonomiko, sozial eta sindikalen aurrean. Kooperatiben mugimendurekin lotutako erakundeetan parte hartzeaz gain, ENKFK ordezkaritza izan du honako beste erakunde hauetan:

- Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza batzordea
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Kontseilua
- HAZILUR, Enpresak sustatzeko sozietatea
- Euskadiko Elikaduraren Klusterra
- INNOBASQUE – Berrikuntzaren Euskal Agentzia
- Nazioarteko Nekazaritza Foroa
- OINARRI EBS
- HAZI
- ELIKA

Halaber, sektoreko kooperatiben interesak ordezkatu, babestu edota aldarrikatzeko harremanak izan ditu instituzioekin (Jaurlaritza, Legebiltzarra eta Aldundiekin).

B. Zerbitzuak

LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZU MANKOMUNATUA. Kooperatiben jarduera eta, maila guztietan, laneko osasuna eta segurtasuna bermatzea da bere xedea. Horretarako, aholkularitza-lana egiten du, eta ingurune seguru eta osasungarrian lan-baldintza egokiak ezarri eta mantentzeko neurriak sustatzen ditu.

AHOLKULARITZA ZERBITZUA. Kooperatiben garapena bultzatzea da bere egiteko nagusia. Horretarako, aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu (kudeaketa, kalitatea, ingurumena, elikagaien segurtasuna, EGE), merkatuaren eskakizunetara egokituko den enpresa eta kooperatiba-eredu bat ahalbidetzeko. 2015ean, 7 proiektu garatu dira aholkularitzaren esparruan.

ZERBITZU JURIDIKOA. Kooperatibek legearen eskakizunak betetzeko laguntza ematea izan da zerbitzu honen xedea. Hain zuzen ere, lan hauek egin dira: Artezkartza Kontseilu eta Batzarretan letradu aholkulariaren figura eskaintzea; erregistroko izen-emateak egitea, Estatutuak aldatu eta egokitzea, hitzarmen eta kontratuak idaztea, arbitraje eta kontziliazioetan laguntzea, sozietateak eratu, eraldatu eta bat egitea; txosten juridikoak prestatu eta kontsultak erantzutea; datuak babestea; ikuskaritzetan laguntza ematea; marka eta mota guztietako baliabideak eskuratu eta legezkatzea.

KOOPERATIBISMOA SUSTATZEKO ZERBITZUA. Nekazaritza-elikagaien sektorean kooperatibismoa sustatzea da bere helburu nagusia. Horretarako, bat egiteko, sinergieak baliatzeko eta kooperatiben arteko ikasketak sustatzeko guneak sortzeaz arduratzen da. Horrekin guztiarekin, Kooperatiben gaineko irudi positiboa zabaltzen du gizartean eta interes-taldeen artean.

C. Prestakuntza eta Sustapena

- Prestakuntza sozial eta enpresarialari buruzko ikastaroa. 10 parte-hartzaile
- Komunikazio buruzko jardunaldia. 5 parte-hartzaile
- Sozietate-zergari buruzko jardunaldia. 22 parte-hartzaile
- 4.0 nekazari-elikagaien Industria buruzko jardunaldia. 10 parte-hartzaile
- Hitzaldia, "elikagai Kontsumoaren Joerak eta Distribuzio Handien estrategiak". 70 parte-hartzaile
- Artezkartza Kontseiluarentzako Senior aholkularitza zenbait kooperatibatan
- Lankidetzaz HAZIrekin ardo-ustiategien Kudeaketa ekonomikoari buruzko ikastaroa emateko
- Elkar-lankidetzarako topaketak Valladolideko ACORen (erremolatxa nekazarien kooperatiba) eta Bizkaiko Aberen (kudeaketa zentro kooperatiba)
- Bidaia teknikoak Ipar Italiara, 48 parte-hartzaileekin

D. Behatoki sozioekonomikoa

Aldian behingo inkestak federatutako kooperatiben artean, sozietatearen eta ekonomiaren inguruko informazioa biltzeko.

E. Informazioa

Kooperatibei zein zenbait interes-talderi hainbat gairi buruzko informazioa eskaini zaie aldian behin: kooperatiben eta zerga-arloko legeria, ingurumena, elikagaien segurtasuna, diru-laguntzak, prezioak, nekazaritzako elikagaien eta landa-eremuen inguruko albisteen prentsa-laburpenak, etab.

1.3. EGKF - EUSKADIKO GARRAIOLARIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

EGKFk, Euskadiko Garraiolarien kooperatibismoaren berezko eginkizunak betetzeko, honako erakundeetan parte hartu du:

- Araba, Bizkai eta Gipuzkoako garraiolarien elkarteetan; garraio-politikan jarraitu beharreko eredu eta proposamenak helarazi ditu, kooperatibentzat positiboak izan daitezten.
- Eusko Jaurlaritzaren garraio-mahaian; Eusko Jaurlaritzaren erabaki eta akordioetan kooperatiben alde eragiteko helburuarekin.
- Bilboko Portuaren Lehiakortasunaren Mahaian; Bilboko Portuan lanerako eskubidea eta baldintza egokiak defendatzeko.
- Arabako garraiolarien arbitraje-batzarrean; sektoreko kooperatiben eta bere bazkideen defentsan, kontsumitzaileen aurrean.

EGKFk gidariak birziklatzeko prestakuntza-ikastaroak (CAP) eta aspaldiko langileentzako garraiolari tituluak kudeatu ditu. Gainera, zenbait produktu elkarrekin erosteko bidea landu du, hala nola gasolioa, gurpilak, olioak eta labaingarriak, aseguruak eta telefono-zerbitzuak.

2. EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN

2014ko uztailaren 9an, KONFEKOOPEK eta EKGK-k, Euskal Kooperatiben Mugimenduaren izenean, egitasmo eta lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzarekin. Honako jarduera-esparru hauek aintzat hartzen ditu hitzarturiko lankidetzeta-esparruak:

1. EKMren ordezkari-tza instituzionala Euskadiko ekonomia eta gizarte-arloko kontsulta eta erabakitze-esparruetan
2. Euskadin kooperatiba berriak eta kooperatibetako enplegua sustatzeko emandako bultzada
3. Euskal Kooperatiben arteko elkar-lankidetzeta bultzatzea
4. EKM sustatzeko martxan diren finantza-tresnak indartzea
5. Pertsonen garapena eta trebakuntza, prestakuntza iraunkorraren bidez
6. Kooperatibismoaren hedapena eta ezagutza
7. Kooperatiben kulturaren eta Gobernu Onaren kodeen garapena, gizarte-kohesioa sortzeko helburuz
8. EKGKren sendotzea

II. Hitzarmena garatzeko eta lan hori errazteko, 3 lantalde misto eratu ziren. Talde horiek hainbat bilera egin zituzten 2015ean eta 2016ko lehenengo sei hilekoan. Nolanahi ere, ekitaldiaren amaieran lantaldeak berriro martxan jartzeari egoki iritzi zitzaion, Gobernu berria eratu ondoren.

- Ordezkaritza Instituzionalaren taldea (1)
- Kooperatibismoa bultzatzeko eta indartzeko taldea (2, 3, 4, 5)
- Kultura kooperatiboa eta EKGK jendarteratzeko taldea (6, 7, 8)

EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREFORMA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailak Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/93 Legea erreformatzeko proposamen bat aurkezteko asmotan aritu da lanean.

Eusko Jaurlaritzarentzat Euskadiko Kooperatiben 4/93 legea aldatuz joan diren lege-testu desberdinak bateratzea da arautze horren helburua nagusia, indarreko araudia sistematizatze eta errazago identifikatu eta erabiltzeko. Horrez gain, zenbait alderditan harmonizazio eta berrikuntza-lana egin nahi du, hala nola ikuskapenari, etxebizitzeko kooperatibismoari edo garraiolariari dagozkien eremuetan.

3. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

Euskal Kooperatiben Mugimenduak Euskadin kooperatiba-enpresa berriak sustatzeko eta euskal kooperatiben finantza-arloa indartzeko bi erakunde estrategikotan parte hartzen du.

3.1. ELKAR-LAN KOOP. E. - KOOPERATIBAK SUSTATZEKO SOZIETATEA

ELKAR-LAN erreferente bat da oinarri demokratikodun enpresa bat sortu nahi duten ekintzaile guztientzat. Euskadin sortu diren enpresa-proiektu berrien sustatzaile guztiei arreta eskaintzeko lanak egin ditu.

2016an, ELKAR-LANek, eskainitako zerbitzuen bidez, 153 kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu zuen, aurreko ekitaldian baino 10 kooperatiba gehiago. Motaren arabera, kooperatiba gehienak lan elkartukoak izan dira, 146 hain zuzen ere. Eta horiez gain, 6 etxebizitza-kooperatiba eta irakaskuntzako kooperatiba 1.

Aurreko ekitaldian eratu ziren kooperatiben jarraipena eta tutoretza ere egin du: haien gizarte-organoen bilereetan parte hartu du, egin dituzten kontsultei erantzun die, etab.

Zabalpen-lana ere egin du, kooperatiben ereduaren eta sustatzaileek mahai gainean jar ditzaketen beharrezanetan eredu horrek dituen aplikazioen gaineko ezjakintasuna arinduz.

Eta proiektu baten izaera juridikoaren hautaketa, aholkua eta laguntza ematen duen horren sinesgarritasunean eta eraginean ere oinarrituta dagoen heinean, 142 aholkularitza, EAEko 28 udal, hainbat tokiko garapen-agentzia eta Lanbideren bulegoen sarea eta enpresen sustapenarekin loturiko beste erakunde batzuen bulegoak bisitatu ditu.

Lan honekin eraginkortasun eta efizientzia handiagoz aurrera jarraitu ahal izateko, ezinbestekoa da aurrerantzean ere kooperatibak eratu dituzten sustatzaileen ezaugarriak, profilak, motibazioak eta zailtasunak identifikatzea. ELKAR-LANek Kooperatiben Enpresa Ekimenen Behatokiaren XI. Txostena prestatu du. EAEn kooperatiba-enpresen sustapena hobetzeko neurriak hartzeko prozesua erraztu beharko dute txostenaren ondorioek.

3.2. OINARRI EBS - ELKARREN BERMERAKO SOZIETATEA

OINARRIrentzat 2016a erronkaz betetako ekitaldia izan da. Gaur egungo merkatuaren egoeraren testuinguruan eraldaketa bati aurre egin dio, eta bidean preskriptoreak zaindu ditu, prozesuak azkartu eta merketu, lurralde gehiagotara hedatu da, ko-abala erabili du, merkatu-segmentua identifikatu eta erantzun ona eman du, Herri Administrazioen

proposamenak apalankatu ditu... eta hori guztia emaitzen kontua behin ere alboratu gabe.

Modu horretan, abal-emaile jarduera 60 milioi eurotik gorakoa izan da, aurreko ekitaldian baino % 15 gehiago.

Finantzen esparruan, enpresa-arloan bezala, tamaina gero eta gehiago izaten ari da aldeko ezaugarri bat, are baita ezinbesteko zerbait ere. Horren erakusgarri dira bankuen segmentuan eman diren bat-egiteak, eta gertuago, euskal kutxen eta kreditu-kooperatiben artean eman direnak, merkatuan duten presentzia eta lehiakortasuna sendotzeko, efizientzia lortzea eta neurri handiagoko proiektuetarako sarbidea ahalbidetzea helburu.

Hausnarketa hori bera egin dute 2016an elkarren bermerako euskal sozietateetan, OINARRI eta ELKARGIN, eta horren fruitu izan da irailaren 30ean bi batzar nagusiek onartu zuten bat-egitea. Hortaz, sozietate handiago bat jaio da, estatuko elkarren bermerako sozietaterik indartsuena, zalantzarik gabe, herrialde osoaren proiektu bat dena, errentagarriagoa eta ospe-arrisku urriagoarekin.

Bat-egitetik sortu den EBSa gizarte-ekonomiako dibisio berezi batekin jaio da, zuzenean zuzendari nagusiaren mende dagoen zuzendaritza batekin eta aurrekontu berezi batekin. Dibisio horrek "OINARRI-Gizarte Ekonomia" marka erabiliko du, identifikazioa errazteko.

Administrazio-kontseilu berriak gizarte-ekonomiako erakundeetako lau ordezkari izango ditu, horien artean ERKIDE, ENKF eta LKS Koop.E.ren ordezkariak.

Helburua ez da, noski, oro har gizarte-ekonomiari eta zehazki kooperatiba-enpresei ematen zaien finantza-laguntza ahultzea. Alderantziz, proiektu berria esparru hori indartzeko sortu da, hazteko aukera gehiago dituen elkarren bermerako sozietate irmoago bat oinarri hartuta.

4. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

4.1. EKGK – EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

EKGK-k bere 2014-2017 Plan Estrategikoarekin aurrera jarraitu du aurten. Epealdi horretarako erakundearen oinarritzko lan-ildoak zehaztuta daude plan horretan. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako Egitasmo eta Lankidetzaren Hitzarmenaren garapenean parte hartu du (bere gain dauka idazkaritzaren ardura), KONFEKOOPekin batera.

Horrez gain, BITARTU-Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren bidez, euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurak administratu ditu. BITARTUK 23 arbitrajeta, 30 adiskidetzeta eta 61 gatazkatan esku hartu du. Gainera, bitartekotzaren modalitatea bultzatu du.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak igorri dizkion hainbat araudiri buruzko 8 nahitaezko txosten jaulki ditu EKGK-k. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailak Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzeko abian jarri duen prozesuan parte hartu du, KONFEKOOPekin batera.

EKGKren Aholkulari Seniorren taldeak Euskadiko kooperatibei zerbitzua eskaini die aurten berriro, eta gaur egun, lan elkartuko eta irakaskuntzako 8 kooperatibatan lanean ari da.

Kooperatiben azkentzeen arloan, 50 likidazio-espeditetan eta sozietatea eraldatzeko 5 espeditetan parte hartu du EKGK-k.

Interpretazio eta informazio juridiko orokorrari buruzko 4 kontsulta formal eta 250 kontsultari erantzun die.

ERKIDek eta ENKFK lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute EKGKrekin, 2016ko ekitaldian lan elkartuko, irakaskuntzako, kontsumoko, kredituko eta nekazaritzako elikagaien arloko kooperatibismoa sustatzeko hainbat programa garatzea helburu duena.

4.2. NAK - NAZIOARTEKO KOOPERATIBA ALIANTZA

NAKen batzar nagusia urriaren 10ean egin zen Quebecen. Aurkeztutako balantze kontsolidatuaren emaitza saldo negatibo potolo bat da, hein handi batean, duela 3 urte onartu zen eta 2015ean amaitu behar zen kuoten mailakako berregituraketaren ondorioz. Zenbait bazkide ez daudenez ados 2013an onartutako kuoten formularen bidez kalkulaturako zenbatekoekin, kuota ordaintzeari utzi diote.

Egoera zailaren berri eman zitzaion batzarrari, eta konponbideren baten bila lan eta lan ari direla jakinarazi zitzaion. Horrez gain, jakitera eman zen dotCoop-etik (.coop) datozen diru-sarrerak zenbatu ondoren, kontu arruntean egiten ez dena, guztirako emaitza negatiboa nabarmen murriztu dela.

Horrez gain, NAKen Board-aren 2 leku hutsak betetzeko bozketa bat egin zen, eta Dimtry Zubov (Errusiar federazioaren Kontsumoko ordezkaria) eta Bennett Lyle Reid (Cooperatives UKren ordezkaria) aukeratu ziren.

Apirilaren 20an, EUCC - Cooperatives Europek (NAKen Europako atalak) batzar nagusia egin zuen Bruselan, eta datu hauek eman zituen: 141.000.000 kooperatibista, 176.000 kooperatiba eta 4.700.000 enplegu Europan. "The power of cooperation" izeneko txostena aurkeztu da, eta bertan azaltzen da Europako herritarren % 17 kooperatiba baten bazkidea dela. YECN – Europako Kooperatibista Gazteen Sarearen hirugarren topaketa aldi berean egin zen, eta laugarrena, aldiz, urrian izan zen, Arrasaten.

4.3. EGES - EUSKAL GIZARTE EKONOMIAREN SAREA

EGESek GEEBrekin bilera bat egin du, 3 lan-ildoak (arlotik zientifiko-ekonomikoa, arlo juridikoa eta arlo sozioekonomikoa) eta haien arduradunak aurkezteko.

GSEF, Global Social Economy Forumaren 2018ko topaketa Bilbon egiteko Bilboko Udalaren eta Arrasate-Mondragonen arteko hautagaitzak EGESen eta bereziki KONFEKOOPEN babesa jaso du.

Horrez gain, 2017ko otsailaren 8an BBFn "Gizarte-ekonomiaren egitekoa tokiko garapenean" gaiari buruzko mintegi bat egitea adostu da, GARAPEN Euskal Garapen Agentzien Elkartearekin lankidetzan. Jardunaldi horretan elkar-ezagutza handitu eta etorkizunean elkarrekin aritzeko lan-ildoak identifikatuko dira.

4.4. ETESS PROIEKTUA - GIZARTE EKONOMIAREN MUGAZ GAINDIKO ESKOLA

Europar Batasuneko POCTEFA programarako Feder Fondoan barruan, eta Sarea osatzen lagundu zuen aurreko proiektuaren jarraipena izan dadin, KONFEKOOPek proiektu berri bat aurkeztu du, eta onartu egin diote, ETESS - Gizarte Ekonomiaren Mugaz Gaindiko Eskola, honako bazkide hauekin batera:

ANEL, Nafarroako Lan Sozietateen eta Lan Elkartuko Kooperatiben Elkarte

Ville d'Hendaye, Hendaiako Udala

CBE, Comité de Bassin d'Emploi du Seignanx



KONFEKOOP

Proiektu honekin KONFEKOOPek mugaz gaindiko lankidetzaz indartu nahi du, eta, potentzial endogenoa lantzeko daukaten trebakuntzari esker, tokiko eragileen enplegurako sarbidea hobetu, lurralde mugakideen beharrei erantzun dieten Gizarte Ekonomiako proiektu berritzaileen sorreraren bidez.

Proiektua martxan jartzeko ekitaldian, Uxue Barkos Nafarroako presidentek eta Izaskun Goñi Ekintzailetza zuzendariak bertaratutako erakundeei harrera egin zieten. Erakundeak haien eskualdeko gobernuen ordezkariekin batera joan ziren; gure kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiako zuzendariarekin bertaratu ginen.

5. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK

Euskadiko Kooperatiben ordezkari instituzionala izatea eta Organo Publikoetan haien presentzia instituzionala bultzatzea dira KONFEKOOPEN helburuak.

Lan hori egiteko, kooperatiba-enpresen interesguneekin loturiko ordezkari-tza instituzionaleko erakunde guztietan ordezkari-tza maila gorena lortzeko lan egin behar du KONFEKOOPek, eta espazio guztietan haren ordezkari-tzako baten presentzia ziurtatzeko ahalegina egin behar du.

5.1. EGK - EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA

2016an, aholkularitza-arloan lan handia egin da, eta prestatu diren 7 irizpenak dira horren fruitua:

- EAEko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoa
- Prestakuntza-espezialitateen euskal katalogoari eta lanbide-heziketarako erakundeen euskal erregistroari buruzko dekretu-proiektua
- Euskadin lanbide-heziketa arautzeko dekretu-proiektua
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua
- EAEko izatezko bikoteen erregistroaren araudia onartzeko dekretu-proiektua
- Enpleguko Zentro Berezien euskal erregistroa sortzeko eta kalifikazioa eta erregistratzea arautzeko dekretu-proiektua
- Krisian dauden enpresak berregituratu eta berriro martxan jartzeko laguntzak zehazten dituen uztailearen 29ko 158/2014 dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektua.

EGK-k 2016ko Memoria Sozioekonomikoa prestatu eta argitaratu du. Analisisirako tresna erabilgarri eta baliotsua da, ekitaldiko datu egiaztatutako oinarri hartuta, euskal gizartearen bizitza ekonomiko eta sozialaren erradiografia egiten baitu. Memoria hau lehendakariari zein Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zitzaion, eta EGKren aholkularitza-lanaren balantzea ere egin zen.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren beste eginkizunetako bat bere kabuz azterketak prestatzearena da. "EAEko gazteen enplegu-aukerak eta lan-merkaturako sarbidea, europar erregioaren ikuspegi alderatutik" gaiari buruzko lan bat egitea erabaki zuen kontseiluak. Lan hori egiteko, lan-batzorde bat eratu zen ad hoc. Ekimen Propioko Azterketen Batzordea 14 aldiz elkartu zen 2016an.

2016an hainbat agerraldi egin zituen:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua EGKren osoko bilkuraren aurrean, gazteentzako enplegu-planak hobetzeko “Gazte errezetak” izeneko proposamenak azaltzeko
- Lan eta Enplegu sailburuordea, Lanbide Heziketa osoa ordenatzeko helburuz gobernuaren prestatzen ari zen dekretuaren lerro nagusiak azaltzeko.
- Administrazio eta Lurralde-plangintzaren sailburuordea, Lurralde Antolamendurako Norabideak berrikusteko prozesua aurkezteko.
- Arrantza zuzendariaren agerraldia, Europako Itsas eta Arrantza Fondoaren programa operatiboa bideratu eta betetzeko plana eta horren barruan finantzatutako Europako Estrategia Atlantikoaren proiektuak aurkezteko.

Azkenik, aipatu beharra dago euskal EGK Eremu Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluen eta pareko erakundeen lankidetzarako sarearen kidea dela. Sare horrek ardatz atlantikoan interes komuneak diren gaiak aztertzen egiten du lan. 2016an, euskal EGK-k taldearen 9 bileretan parte hartu zuen. Horrez gain, euskal EGK-k jardunaldi bat antolatu zuen, Estrategia Atlantikoan jasotako lehentasunezko esparruen barruan dauden euskal itsas ekonomiako eragileekin batera, eta Estrategia Atlantikoa modu egokian gauzatzeko baldintzei buruzko txosten bat aurkeztu zuen, eremu atlantikoko bere homologoekin lankidetzan egindakoa.

5.2. GZEK – GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA

GZEKen jarduera nagusiek honako gai hauekin izan dute zerikusia:

a) Euskadin dauden zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuei eta sendagaien biltegiei buruzko dekretua Euskadin eman den bizi-itxaropenaren hazkundera gizariek eta osasun-eremuaren paradigma berri bat eragin du: gero eta pertsona nagusi gehiago daude, eta gaixotasun kronikoak dituzten eta askotan mendekotasun egoeran dauden pertsonen patroia berri bat sortu da. Herritarren etengabeko zahartzearen ondorioz, bizitza osoan sortutako osasun arazoak metatu egiten dira, eta zaintza eta laguntza-eremuak neurriak hartzeko beharra gero eta handiagoa da. Hori dela-eta, aldaketa sozial eta kultural sakonak gertatzen ari dira.

Sendagaien eskaera gero eta handiagoa da, eta nabarmen gora egin dute preskripzio kopuruak eta pertsona bakoitzeko kontsumoak. Haien erabilerak eragiten dituen onura ugarietaz gain, bestelako eraginak ere baditu: kontrako erreakzioak, interakzio sendagarriak, toxizitateak eragindako kalteak, tratamendu farmakologikoen eragin apalagoa, eta oro har, huts egite terapeutiko gehiago.

Arazo horri aurre egiteko neurrietako bat da Dekretu hau, Zentro Soziosanitarioetako Farmazia-zerbitzuak eta sendagaien biltegiak arautzea helburu duena. Horretarako,

horien ezarpen eta funtzionamendurako beharrezkoak diren baldintzak zehaztu eta baimen emate prozedurak arautzen ditu.

b) Goi Ikuskapeneko Jarduera-plana

Gai hauekin lotutako lanak daude mahai gainean:

- Telelaguntza zerbitzu publikoaren kudeaketa eraginkor, bidezko eta kalitatezkoaren egiaztapena
- Euskadiko Hirugarren Sektorearen maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak ezarritako betebeharrak martxan jartzeko prozesuaren jarraipena.
- Gizartearen intereseko aitorpena jaso duten irabazi asmorik gabeko erakundeen eskakizunak betetzen direla egiaztatzea
- Familia-bitartekotzaren zerbitzu publikoaren kudeaketa eraginkor, bidezko eta kalitatezkoaren egiaztapena
- Gizarte-zerbitzuek lege-tresna komunen aplikazio eta betetze-maila egiaztatzea (Fitxa soziala, diagnostiko sozialaren tresna eta gizarte-bazterketa baloratzeko tresna).

c) EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko Euskal Kontseiluaren V. urteko txostena

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 48. artikulua, besteak beste, honako eginkizunak ezartzen dizkio Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari: "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hobetzeko gomendioak ematea, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistemaren barruan bildutako datuak oinarri hartuta egindako urteko txostenaren barruan". Txostenean analisi kuantitatibo bat egiten da, adituek egindako analisi monografiko ugariarekin batera. Bertan jasotako edukia oinarri hartuta, hainbat gomendio ematen dira Gizarte Zerbitzuen euskal sistema hobetzeko.

Egoitzetako leku kopurua eta horien estaldura-tasa ez atzera ez aurrera geratu da, eta eguneko laguntza-zentroen (adinduak eta ezinduak) eta lanbide-zentroen (enplegu-zentro bereziak) estaldura hazi egin da. Etxez etxeko laguntza zerbitzuek artatutako pertsonen kopurua murriztu egin da.

Euskal gizarte-zerbitzuek 180.000 pertsona ingururi zerbitzua ematen diete (herritarren %9). Prestazio ekonomikoen pisua gero eta handiagoa da, zuzeneko arreta-zerbitzuen aurrean. Prestazio ekonomikoen eta zuzeneko arretaren arteko pisuaren aldaketari begiratzuz gero, azken horiek gizarte-zerbitzuen eskaintzaren %52 izatetik %28 izatera igaro direla ikus dezakegu. Aldiz, prestazio ekonomikoen pisu erlatiboa hazi egin da, %47tik %71ra igo baitira.

Gizarte-zerbitzuetako langile kopuruari dagokionez, Euskadi estatuaren buruan dago, baina Europako beste herrialde batzuek lortutako mailetatik urrun. 29.534 pertsonak lan egiten dute Denbora Oso Baliokidean EAEko gizarte-zerbitzuen sektorean, eta boluntarioak, berriz, 21.262 dira. 2009tik ia ez da igoerarik eman lanean ari diren

pertsonen kopuruan. Gizarte-zerbitzuetako langileen kopurua pixka bat hazten joan den arren, oinarriko gizarte-zerbitzuetako langileen kopurua bere horretan mantendu da.

Gastu eta finantzaketaren egiturari dagokionez, lurraldeen arteko desberdintasunek bere horretan dira.

5.3. ISEK - INDUSTRIA SEGURTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA

ISEK interes sozialen eta industria-segurtasunarekin zerikusia duten jarduerak dituzten sektore nagusien aholku eta parte-hartze organoa da. 2016an, Estatuak bere egin duen Europako araudiaren transposizioak eragindako gaiak jorratu ziren. Gai horiek arautzeko eskumena Eusko Jaurlaritzak dauka:

- Industria-segurtasunaren araudipean dauden instalazio eta ekipoen aldi behingo ikuskapenen kudeaketa-prozedurak EAEn arautzen dituen Dekretu-proiektua. Datu-base berezi bat daukan informatika-aplikazio bat garatu behar da, eta horri esker, EJK egoera kritikoen berri eman ahal izango luke bere kabuz.
- 125/2016 Dekretua, irailaren 6koa, gasa jasotzeko instalazioen ikuskapena eta berrikuspena arautzen duena.
- Ibilgailuak eta jendaurreko salmenta-instalazioak erregaiz hornitzeko dauden instalazioen segurtasun-neurri osagarriei buruzko 159/2014 Dekretua garatzen duen agindu-proiektua, horma bikoitzeko biltegiak gaurkotzeari buruzkoa.
- Industria-jardueren abiatze-erregimenari buruzko eta Industria Erregistroari buruzko 29/2015 Dekretuari buruzko informazioa (EHAA 2015/05/04). Jarduera abiarazteko eskaerak Industria Jardueren erregistroan alta emateko balio du, eta horren barruan daude industria-saltokiak, zerbitzu-enpresak eta eragile baimenduak.
- Eraikin ez-industrialetan suteen kontrako babesa instalazioaren ziurtagiri-eredua onartzeko Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailaren 2014ko uztailaren 30eko aginduari buruzko informazioa. Bertan, enpresa instalatzailea jotzen da instalazioaren arduradun, Eraikuntzaren Kodigo Teknikoarekin gatazkarik eragin gabe.

Gaur egun, arretarik gabeko gasolindegien dekretu-proiektua lantzen ari da.

5.4. GEK – GIZARTERATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

GEKa Gizarte-larrialdiko Laguntzen dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren gaineko nahitaezko txostenaren harira elkartu da.

Hona hemen proposatu diren aldaketa nagusiak:

- GLLn jasotako gastuak etxebizitza edo ohiko ostaturako dira, eta oinarrizko beharrezanean aurre egiteko, hala nola jantziak, hezkuntza eta osasun-arreta.
- Alokairu-gastuetarako, gizarte-larrialdiko laguntzak bateraezinak dira diru-sarrerak bermatzeko errentarekin eta etxebizitzaren prestazio ekonomikoarekin.
- GLLen bateraezintasuna ohiko etxebizitzarako, etxea babes publikokoa bada edo, etxe baten jabe izanda, beste etxebizitza baten alokairu-gastuetarako bada.
- Eskatzailearen hileko baliabideak zeintzuk diren zehazteko, DBEaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko da.
- Udalei zenbatekoak transferitzeko prozedura xehea.
- Datuak eta frogagiriak igortzeko prozedura xehea

5.5. ENK - EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE KONTSEILUA

KONFEKOOPEK kooperatiben nazioartekotzeari laguntzeko ohiko jarduerak egin ditu. 2016an, nazioartekotzearen esparruko euskal enpresen erreferente nagusien eta Eusko Jaurlaritzaren sailaren arteko topagunerik ez da deitu ENKn.

5.6. GAEK - GIZARTE AURREIKUSPENEN EUSKAL KONTSEILUA

2016an, GAEK eratu da, Eusko Jaurlaritzarekin batera, lan-agenda bat zehazteko. Ordezkarien artean gaur egungo egoeraren, etorkizuneko aurreikuspenen eta kontseiluak gizarte-aurreikuspenen esparruan egin behar duen lanaren inguruko iritziak biltzeari ekin dio.

KONFEKOOPEK iradokizun hauek egin ditu:

- EJK 2006an Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planean jasotako aurreikuspenak berrikustea eta GAEKek funtsezko paper bat daukan Plan berri bat garatzea.
- GAOa garatu eta orokortzea, herritarrek pentsio egokiak eduki ahal izateko.
- Gaur egungo zergak harmonizatzea.
- Eta herrialdeko ehun sozioenpresariala, eta beraz Kooperatibak, aintzat hartuko dituen plan bat egitea.

5.7. FEK – FAMILIAREN EUSKAL KONTSEILUA

2016ko ekitaldian, izatezko bikoteak arautzeko lana egin da. Maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak eta ekainaren 22ko bere 124/2004 araudiak jasotzen dituzte horien inguruko kontuak. Izatezko Bikoteen erregistroan aurkeztu daitezkeen prozedurei berme

handiagoa emateko, eta, aldi berean, segurtasun juridikoa handitzeko, EAEn Izatezko Bikoteak arautzeko araudi berri bat onartzea egokia izango litzateke. Dekretu horren hirugarren zirriborroak Familiaren Euskal Kontseiluaren oniritzia zein EGKren berarena jaso du, eta legegintzaldi berriaren hasieran onartu beharko litzateke.

Horrez gain, eta aurreikusi bezala, 2016ko azken hiruhilekoan, "EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko III. Planaren" ebaluazioa egiteko eztabaida-taldeak egin ziren. Oraindik adierazle estatistiko nagusien bilakaera (2011-2015) ezagutu gabe, ebaluazioak balorazio negatiboa izan du, hasieran planifikatutako 169 neurrietatik, 2013an 4 ardatz estrategikoetako 32 neurri lehenetsi baitziren:

- Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzea
- Gurasotasun positiboa
- Belaunaldien arteko elkartasuna
- Laguntza ekonomikoak (familiarentzat eta hirugarren sektorearentzat)

Azkenean, 16 ekintza estrategikotan txertatu ziren, eta horietatik 5 besterik ez dira gauzatu 2011-2015 epealdian.

5.8. OSALAN – LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA

Europatik zehazten ari diren eta EAEk bere errealitatera egokituz bere egin behar dituen jarraibideetara lerratu da OSALAN. Ildo horretatik, 2014-2020 laneko osasun eta segurtasunaren arloko EBren marko estrategikoaren berrikuspenera egokitu behar izan du. Berrikuspen hori Europako Parlamentuak egin zuen eta 2015eko azaroaren 25eko ebazpenean jaso zuen.

OSALANen lana garatzeko testuinguru sozioekonomikoan nabarmentzekoak dira honako hauek: ezbehar-kopuruaren igoera, beharbada, enpresa-jardueraren igoeraren ondorioz; istripuen gutxiegizko aitortpenak, hein handi batean lan-harremanen prekarietatearen ondorioz; lan-merkatuaren globalizazio-joera gero eta handiagoa; eta biztanleria aktiboaren zahartzea.

Martxan jarritako ekintzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Laneko segurtasuna eta prebentzioaren gaineko kontzientziazio eta sentsibilizazio-lana gizartean.
- Lan-arriskuak prebenitzeko jardueren kudeaketa bere egiteko ETE eta autonomoentzako laguntza.
- Ezbeharretarako joera handiagoa duten enpresa eta jardueren arazoetan eragitea, eta ezbeharren arrazoiak identifikatu eta horiek saihesteko neurriak proposatzea

- Arrisku-tipologia guztien tratamendurako proiektuak planteatzea (segurtasuna, higieena, ergonomia eta psikosozialak)
- Lan-arriskuen prebentzioan berrikuntza sustatzea, laneko arriskuen eta egoera berrien azterketa eta ikerketaren bitartez.
- Genero-perspektiba ezartzea, laneko segurtasun eta osasunaren arloan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuz.
- Defizit-egoeran dauden taldeei arreta eskaintzea, hala nola pertsona adinduak, ezinduak...
- Arrisku larri zehatzen aurka esku hartzea: amianto, silizea, egur-hautsa eta zarata.

5.9. KONTSUMOBIDE – KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA

Lau izan dira 2016an KONTSUMOBIDEREN kudeaketaren ardatzak:

a) Informazioa. KONTSUMOBIDEREN helburu nagusietako bat da:

- Argitalpenak: Kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa helarazteko, kontsumoko gaiei buruzko monografiko, liburuxka, gida eta bestelako materialen argitalpenaren bidez.
- Sentsibilizazioa: Kontsumitzaileei haien eskubide eta betebeharren berri emateko, eta kontsumitzeko orduan gerta daitezkeen arrisku-egoerei buruzko aholkuak emateko, 2016an, KONTSUMOBIDEK dibulgazio-kanpaina bat egin zuen irratian, 3 prentsaurreko eman zituen eta hedabideentzako 11 prentsa-ohar bidali zituen.
- www.kontsumobide.eus webgunea: 2016an 112.190 bisita jaso zituen.

b) Kontsumo-arloko prestakuntza:

- KONTSUMOBIDEREN zentroetan. 2.036 prestakuntza-tailer eskaini dira, hezitzaileentzako 7 jardunaldi teoriko-praktiko eta 31 prestakuntza-saio erakunde publikoetan. Guztira 23.102 pertsonak parte hartu dute.
- Ikastetxeetan. Hainbat ikastetxetan egin den programa ibiltariaren bidez, kontsumoari buruzko 2.601 tailer egin dira. 2.534 ikasleentzat izan dira (2.156 Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta 378 DBHko 1. zikloentzat) eta 67 gurasoentzat. Euskadiko 133 ikastetxetan egin diren tailerretan, 50.735 ikaslek eta haien irakasleek parte hartu dute, eta 823 gurasok.
- Adinduentzat. 63 hitzaldi eta 83 tailer praktiko egin dira. 3.601 pertsonak parte hartu dute bertan (2.756 emakume eta 845 gizon), 75 taldetan banatuta. “Medikazioa eta automedikazioa” izan da gehien eskatu den gaia, eta horren atzetik, “Elikadura eta Nutrizioa” eta “Segurtasuna Adinduentzat”. Horrez gain, guztira 29 bisita egin dira, hala ekoizpen edo zerbitzu-zentroetara nola kontsumo-arloko prestakuntza-zentroetara.

c) Gatazkak konpontzea.

- Kontsumoaren inguruko 38.158 kontsulta erantzun dira Euskadin, horietako 8.144 zuzenean KONTSUMOBIDERI egindakoak.
- Euskadin kontsumoaren inguruko 19.618 erreklamazio tramitatu dira (7.636 KONTSUMOBIDEN, 10.835 KIUB Udal Bulegoetan, eta 1.147 Kontsumitzaileen Elkartean).
- 131 zigor-espeditente ireki ziren, bai jasotako erreklamazioen ondorioz zein programatutako ikuskapen-kanpainen harira.
- Erabiltzaileen eta enpresen arteko kontsumo-harremanek eragindako gatazkak konpontzeko bide errazena eta azkarrena arbitrajea da, eta izen-emateen balantzea positiboa izan da, 1.457 enpresa atxiki direlako sistema horretara. Kontsumoko Arbitraje Sistemaren barruan dauden enpresak, guztira, 14.381 dira.

d) Merkatuaren kontrola.

- Ikuskapen eta kontrol-kanpainak: derrigorrezko elikadura-informazioa elikagaietan, ontziratzea, edari energetikoak, etiketatzea, kromoaren kontrol analitikoak eta osaera oinetakoetan, banakako babeserako osagaiak, online salmenta eskaintzen duten webguneak, beirazko Dewar daukaten termoak, etab.
- Elikagaiak ez diren produktuen segurtasunaren kontrola
- Ikuskatze-ekintzak. 2016an 2.013 ekintza egin dira, horietako batzuk kanpainen ondorioz eta gehienak honako arrazoiengatik: salaketak, erreklamazioak, SOIVREekin koordinatutako ekintzak, produktu irregularren agerpena edota autonomia-erkidegoen arteko komunikazioak eta inhibizioak.

5.10. EUSTAT - EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA

EUSTATEN 2016ko Urteko Estatistika Programaren laburpena:

- 210 eragiketa estatistiko planifikatu dira.
- Esleitutako aurrekontua 17,5 milioi eurokoa izan zen.
- EUSTATEK 112 eragiketaren ardura zuzena izan du, aurrekontuaren %71ekin.
- Gizarte Ekonomiari dagokionez, ohiko 2 eragiketei (Euskal Gizarte Ekonomiaren Estatistika eta Gizarte Ekonomiaren Eraitzen Aurrerapena), azterlan berri bat gehitu zaie, Herri Administrazio eta Justizia sailak koordinatu beharrekoa: "Herri-onurako elkarteen eta fundazioen sektorea EAEn".
- EUSTATEK DGS edo LURDATA aplikaziora online sartzeko bidea eskaini du, geolokalizazio mapen bidez EAeko informazio estatistikoa eskuratzeko.

5.11. EUSKADIKO IMMIGRANTEEN INTEGRAZIO ETA PARTAIDETZARAKO FOROA

Euskadiko Herritar Immigranteen integrazio eta partaidetzarako foroaren” osoko bilkuran batzordeen garapenaren berri ematen da. Immigrazioaren Euskal Estrategiaren lanek 5 ardatz izan zituzten:

1. Herritarren eta immigrazioaren euskal politikaren erakundeen arteko eta barruko egituratzea eta bideratzea
2. Integrazteko bidean enplegua, prestakuntza eta eskola-arrakastarako sarbidea, herritar oso izateko sarbidea eta baliabideen mobilizazioa
3. Dibertsitatearen kudeaketa eta sarbidea zerbitzu eta programa publikoetan
4. Parte-hartzea, aniztasun kulturala eta bizikidetzak
5. Diskriminazioaren, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borroka

Batzorde hauetan Administrazioaren sailak, Justizia, Etxebizitza, Emakunde, AFA eta BFAk ere esku hartzen dute.

- Lan-batzordea. Enplegu-aukeren hobekuntza, aniztasunaren kudeaketa lan-esparruan, tratu-berdintasuna etxeko-lanen zerbitzuan eta sasoikako lana
- Osasun Batzordea. Osasun-arretaren araudia, adin txikikoentzako eta haurdunentzako arreta eta emakumezkoen genitalen mutilazioaren jarraipena
- Parte-hartze, Kultura eta Sentsibilizazio batzordea. Euskara, bigarren belaunaldiak, gazteak eta parte-hartzea
- Etxebizitza eta Gizarte-baliabideen batzordea. DBLaren aldeko “Eskubideak +, Derechos +” kanpaina, hura zikintzeko egindako ahaleginen aurrean
- Hezkuntza Batzordea
- Berme Juridikoen Batzordea. Errotze-txostenen, etxebizitzaren egokitze-txostenen eta gizarteratze-ahaleginen txostenen jarraipena. Eta horrez gain, Aholku-Sara eta Eraberean zerbitzuak

Errefuxiatuak. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailak jakinarazitakoaren arabera, 2016an kupoaren barruan heldutako errefuxiatuak 47 izan ziren. Pixkanaka iristen ari dira, eta jatorrizko herrialdearen identifikazioarekin arazo handiak izaten ari dira.

Gaur egun, 250/300 pertsona inguru daude harrera-fasean Euskadin, eta horren ondoren, integrazio-fasera igaroko dira.

6. KOMUNIKAZIOA

6.1. WEBGUNEA: www.konfekoop.coop

Webgunea komunikazio-tresna oso garrantzitsua da, eta egoki ikusi da hura eguneratzea. Horretarako, batzorde bat eratu da, webgune berriak izango dituen osagaiak eta informazioa zehazteko. KONFEKOOPEN irudi korporatiboaren erakusleia da, eta bisitariei euskal kooperatibismoaren ordezkari instituzionalaren ideia osoago bat eskaintzeko aukera ematen du.

Webgunea etengabe eguneratzen da, eta, horrez gain, KONFEKOOPEN kontseilariarentzat eta Federazioentzat oso erabilgarria den gune pribatu bat dauka, informazioa eskuratzeko.

2016an, 3.479 bisitari izan zituen, 4.310 saiotan 12.841 orrialde ikusi zituztenak.

6.2. FOROKOOP – KOOPERATIBA-EZTABAIDARAKO FOROA

Mundu osoko kooperatiben aurrean, nazioarteko komunikazioaren esparruko erreferente bihurtzea lortzen ari da FOROKOOP.

Webgunean 6.608 bisita erregistratu dira. Foroan 6 argitalpen egin dira. 2016an, honako herrialde hauetatik jaso dira bisita gehien webgunean: Errusia, Erresuma Batua eta Estatu Batuak. Nolanahi ere, bisiten %53 espainiar estatutik heltzen da.

Webgunera iristeko asko erabili dira sare sozialak, eta kooperatiben sustapen eta zabalpenerako bide egokia dira:

- facebook: 871 jarraitzaile (+44); 127 argitalpen; 3 ekitaldi
- twitter: 973 jarraitzaile (+125); 752 argitalpen
- youtube: 9 harpide; 12 argitalpen
- instagram: 7 jarraitzaile; 46 argitalpen
- flickr: 6 jarraitzaile; 399 argitalpen

“Kooperatibismoaren ekarpen soziala” izeneko X. jardunaldia urriaren 5ean egin zen Garaia Berrikuntza Gunean. Jardunaldi horretan YECN, Europako Kooperatibista Gazteen Sareak parte hartu zuen, eta beraz, hiru eletan egin zen. Komunikazioa errazteko, dinamikarako Lego Serious Play erabiltzea erabaki zen. Horrez gain, lekukotzen kolaborazio bidezko bideo bat eskaini zen: "Zer da zuretzat kooperatibismoa?", eta Elisa Terrasik (CICOPA) "Kooperatibak eta enplegua" gaiari buruzko munduko azterketaren datuak ezagutzera eman zituen.

6.3. “KOOPERATIBA-ENPRESA” SAIOA ONDA VASCA - HERRI IRRATIAN

ONDA VASCAREN bidez, ostegun arratsaldero “Kooperatiba-entresa” saioa eskaintzen du KONFEKOOPek, eta irratsaio bakoitzean, euskal kooperatibismoaren inguruko albiste bat eskaintzen da: sortu diren kooperatiba berriak, kanpo ezarpenak, egindako inbertsioak, Kooperatiben federazioek martxan jarri dituzten programak, etab.

Gainera, KONFEKOOPEN iragarkiak ere eman dira, haren ordezkagarritasunaren zein eskaintzen dituen zerbitzuen ingurukoak.

6.4. BESTE HAINBAT HEDABIDE

KONFEKOOPeko arduradunei hainbat elkarrizketa egin dizkiete hainbat hedabidetan, eta kooperatibismoarekin loturiko gaiei buruzko iritzi-artikuluak idatzi dituzte, hala hedabideek eskatuta nola ekimen propioz.

7. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

Euskal Kooperatiben Mugimenduaren kezka-iturri diren beste esparru batzuk.

7.1. EGE – ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Ekitaldi honetan, esparru honetan jorratu den lanak honako ezaugarri hauek izan ditu:

- FOARSE – EGEaren Arabako Foroak EGEa zabaltzera mugatu du bere jarduera. Irailean, EGEaren X. Biltzarra egin zuen, “Negozio arduratsuak: EGEa 10 urtez Araban. Etorkizunari ekiteko jardunaldi bat”. Hainbat erakundek parte hartu zuten, eta Lego Serious Play dinamika erabili zen. X. Biltzar honen harira, urteko buletinean bazkideetako bakoitzak EGEaren arloan azken hamarkadan eman diren mugarren inguruan hitz egin zuen.
- GEK/RSC GIPUZKOA FOROAN gaur egun ez dago jarduerarik.
- INNOBASQUEREN EGE I-TALDEAK, hastapenetik KONFEKOOPEN parte-hartzea izan duena, gaur egun ez dauka inolako jarduerarik.

7.2. JARDUERAK EUSKARAREN ESPARRUAN

Honako hauek izan dira Kooperatibetan euskararen erabilera normalizatzeko KONFEKOOPEK egin dituen lanak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura sailarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren jarraipena egin du (LAN-HITZ programa), euskarak lan-munduan duen erabilera eta presentzia handitzeko.

BIKAIN hizkuntza-kudeaketako kalitate-ziurtagiriaren ebaluazio-sistemaren jarraipena egiten duten organoetan (Artezkaritza Kontseiluan eta “Kudeaketako Batzorde eragilean”) parte hartzen du KONFEKOOPEK. BIKAIN SARIA jaso duten erakundeen lana aitortzeko abenduaren 19an Donostiako Kursoalen egin zen ekitaldira ere joan zen.

2016a ekitaldi bikaina izan da, 52 enpresa eta erakundek jaso baitute sari hau. Horietatik 11k oinarrizko mailako modalitatean jaso dute saria, 22k maila ertainean eta beste 19ak goi mailan; horien artean 10 kooperatiba zeuden. 2007tik 313 erakundek lortu dute BIKAIN SARIA: 65 oinarrizko mailakoa, 128 maila ertainekoa eta 120 goi mailakoa.

Enpresa eta erakunde horien prestakuntza-saioretan 199 ebaluatzaile prestatu ziren, eta guztira 189 ebaluatzailek parte hartu zuten. Enpresa eta erakundeek ebaluazioetan erakutsi zuten gogobetetze-maila 10 puntutik 8,3koa izan zen.

- KONFEKOOP BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN ELKARTEAREN “zuzendaritzako kidea” izan da, bazkide diren erakunde erabiltzaileen izenean.

1.258 dira orain arte BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA jaso duten enpresa, saltoki eta erakundeak, horrela banatuta: "bidean" motako ziurtagiriak 548, "zerbitzua euskaraz" ziurtagiriak 509 eta "zerbitzua eta lana" ziurtagiriak 201.

2016an, beste 56 erakundek eskuratu dute ZIURTAGIRIAREN modalitatearen bat Euskal Herri osoan. Halaber, neurri handi batean egoera ekonomiko okerraren ondorioz, ziurtagiria eskuratu zuten erakundearen artean eman diren bajak 105 izan dira, gehienak merkataritza eta ostalaritzako sektorekoak.

Uztailaren 1ean, Donostiako 2016 Espazioan, BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA eskuratu duten erakundeei hura emateko ekitaldia egin zen. Bertan, Mikel Lezamiz, Mondragon Taldeko zabalpen kooperatiboaren arduradunak, Bai Euskarari Laguna saria jaso zuen; horrez gain, BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA jaso zuten erakundearen artean, Sorginen Museoa eta Laneki saritu ziren.

Bestalde, azaroaren 3an, Orona-Ideo berrikuntza-zentroak ENPERSAREAN ekimenaren beste edizio bat antolatu zuen, “Finantzaketa eta ekintzaitza modu berriak. Etorkizuneko erronkei aurre egiteko formula berriak” izenburupean.

2016an, azkenik, BIKAIN SARIEI eta BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIEI buruzko informazioa igorri zaie federatutako kooperatiba guztiei.

Eta abenduaren 3an Guggenheim museoan egin zen Euskararen Nazioarteko Egunean parte hartu genuen, eta hizkuntza-normalizazioaren aldeko konpromisoa hartu genuen.

7.3. KNE - KOOPERATIBEN NAZIOARTEKO EGUNA

Uztailaren 3an, Euskal Kooperatiben Mugimenduak Kooperatiben 94. Nazioarteko Eguna ospatu zuen, goiburu honekin: “Kooperatibak: etorkizun iraunkor baten alde ekitearen boterea”.

Pertsonen beharrezan erantzuteko balio eta printzipioak oinarri dituzten enpresak diren heinean, kooperatibek paper funtsezkoa daukate Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren hamazazpi helburuak lortzeko bidean. Helburu horiekin agenda anbiziotsua osatu da, 2030ean pobrezia desagerrarazteko, klima-aldaketari aurre egiteko eta mundu osoan berdintasuna eta gizarteratzea ziurtatzeko.

GIHak Hamarkada Kooperatibo baterako Ekintza-planean jasotako helburu ugarien isla dira. Plan hori kooperatibek kooperatibentzat egindako estrategia orokor bat da, helburu

hauek dituen: kooperatibak ekonomia, gizarte eta ingurumen-arloko iraunkortasunaren lider ezagun izatea, pertsonen eredu gogokoena izatea eta hazkunde handiena duen enpresa-eredua izatea. NBEk sektore pribatuko eragileen artean aintzat hartzen ditu kooperatibak.

7.4. GEEB - GIZARTE EKONOMIAREN EUSKAL BEHATOKIA

KONFEKOOP GEEBren Aholku-batzordeko kidea da. Behatokiak egiten dituen informazio-buletinaren eta Euskadiko Gizarte Ekonomiaren egoerari buruzko urteko txostenaren balioa nabarmendu da. Bere jarduera 3 arlotan banatzen da:

- Esparru sozioekonomikoa
- Esparru juridiko-politikoa
- Esparru zientifiko-akademikoa

7.5. INNOBASQUE

KONFEKOOPEK, INNOBASQUEko bazkide den heinean, zenbait i-Taldetan (lantaldetan) parte hartu du. 2016an i-Talde horiek ez dute jarduerarik izan.

7.6. KOOPERATIBEN NAZIOARTEKO GOI-BILERA

Urriaren 10etik 14ra, KONFEKOOPEN ordezkariak batek Quebecen egin zen Kooperatiben Nazioarteko III. Goi-bileran parte hartu zuen. "Kooperatiben ekiteko boterea" goiburupean, 116 herrialdeko kooperatibismoaren 2.950 arduradun elkartu ziren, eta Euskadiko 3 hizlari egon ziren.

Besteak beste Joseph Stiglitz Ekonomiako Nobel saridunak ekonomia eta gizartea antolatzeko beste bide batzuk aurkitzearen beharraz hitz egin zuen. Etengabe hazten ari den desberdintasun sozialen aurrean, elkartasuna eta gizarte-justizia oinarrian izango dituen eredu bat eraiki beharraz mintzatu zen. "Zenbait demokraziaren eredua gehiago da *dolar 1 = boto 1, pertsona 1 = boto 1* baino".

8. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK

8.1. OINARRI E.B.S.

OINARRI EBSrekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren arabera, KONFEKOOPEK bere gain hartuko ditu federatutako kooperatiben finantza-abal eragiketen azterketa gastuak.

8.2. GARLAN, KOOP.E.

GARLAN KOOP.E.rekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren arabera, GARLAN KOOP.E.ko bazkideek Kooperatibaren Kreditu atalari eskatzen dizkieten maileguen azterketa-komisioa finantzatzeko KONFEKOOPEK finantzatuko du.

8.3. ALECOPE, KOOP.E.

ALECOPEko eskolako bazkide laguntzaileek jasotako prestakuntza teorikoa indartzea eta osatzea da lankidetzak-hitzarmenaren xedea. Horretarako, KONFEKOOPEN barruko Euskadiko Kooperatiben federazio sektorialetako bazkide den edozein kooperatibatan, laneratzeko gaitasunak eta gaitasun profesionalak praktikan jarri ditzakete bazkide laguntzaile horiek. Hau da, prestakuntza akademikoa osatuko dute, jasotako prestakuntza teorikoaren osagarri izango diren praktika-aldien bidez.

Praktikak ohiko lanaldiaren % 50eko iraupena daukate, eta irakastorduetatik kanpo egiten dira. ALECOPEko eskolako bazkide laguntzailearen eta praktikak egiteko aukeratzen den Kooperatibaren artean ez da inolako lan-harremanik ezarriko.

8.4. EUSKALTEL

Federazio sektorialen barruan dauden kooperatiba guztiak EUSKALTELEkin sinatutako hitzarmenean alta emanda daude, hitzartutako abantailak eskuratu ahal izateko. Hitzarmenaren baldintzak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

8.5. IMQ – IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO

KONFEKOOPEK IMQrekin sinatuta daukan hitzarmena eguneratu du, eta horri esker, federatutako kooperatibek deskontu garrantzitsuak eskuratu ditzakete osasun-asegurua kontratatzen dutenean. Hitzarmenaren baldintzak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

8.6. PARTE-HARTZEA HAINBAT EKITALDITAN

Ekitaldi honetan, KONFEKOOPEK hainbat ekitaldi eta bileratan parte hartu du:

- Sareen Sarea plan estrategikoa, Donostian, urtarrilaren 12an
- Euskadi-Basque Country belaunaldia, Iñigo Urkullu lehendakariarekin, otsailaren 29an, Deusto Business Schoolen
- Europa Foruma, Juan Mari Aburtorekin, martxoaren 1ean, Ercilla hotelean
- ENKFren batzar nagusia, martxoaren 17an, Mungian
- Jose Andres Blasco Enplegu eta Lan sailburuordea eta Alfredo Ispizua Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako zuzendaria, apirilaren 5ean, KONFEKOOPEN.
- Europa Foruma, Jon Darponekin, apirilaren 11n, Ercillan
- Enpleguaren Euskal Estrategia, apirilaren 13an, Euskaldunan
- Cooperatives Europeeren batzar nagusia, apirilaren 20an, Bruselan
- Mondragonen kooperatibismoa eta hirugarren sektorea, apirilaren 22an, Bilbao Berrikuntza Faktorian
- OINARRI EBSren batzar nagusia, apirilaren 27an, Artiumen.
- Europa Foruma, Arantza Tapiarekin, maiatzaren 4an, Ercillan
- ASLEren batzar nagusia, maiatzaren 6an, Euskaldunan
- Gonzalo Nardiz sariak, maiatzaren 10ean, lehendakaritzan
- ANELen batzar nagusia, maiatzaren 13an, Iruñean
- Foarseren X. Jardunaldia, maiatzaren 19an, Europa Jauregian
- CEPESen batzar nagusia, maiatzaren 24an, Madrilan
- ERKIDERen batzar nagusia, maiatzaren 25ean, Miñaon.
- KONFEKOOPEN batzar nagusia, maiatzaren 27an, Miñaon.
- EGESen batzar nagusia, ekainaren 1ean, Bilboko ASLEn
- ELKAR-LANen batzar nagusia, ekainaren 7an, ELKAR-LANen
- Gasteizko udaleko Industria mahaia, ekainaren 9an, Europa Jauregian
- Global Innovation Day, ekainaren 14an, Euskaldunan
- INNOBASQUERen batzar nagusia, ekainaren 14an, Euskaldunan
- Jabier Larrañaga GFAn Ogasun eta Finantza diputatua, ekainaren 15ean, GFAn
- Angel Toña Enplegu eta Gizarte Politiken sailburua, Jose Andres Blasco Enplegu eta Lan sailburuordea eta Alfredo Ispizua Gizarte Ekonomiako zuzendaria, Gizarte Ekonomiaren Kontuen aurkezpenean, ekainaren 23an, Bizkaia Plazan
- Europa Foruma, Iñigo Urkullurekin, irailaren 9an, Ercillan
- MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN 2016-2017 ikasturtearen aurkezpenean, irailaren 17an BCCn.
- GFAREN Berdintasun Planaren aurkezpenean, irailaren 19an, Donostian

- Uxue Barkos Nafarroako Gobernuaren presidentea, irailaren 21ean, Nafarroako Gobernuan
- Unesco Etxearen topaketak, irailaren 28an, Bilbon
- OINARRI EBSren Ezohiko batzar nagusia, irailaren 30ean, Miñáon
- FOROKOOPEN X. jardunaldia, urriaren 5ean, Garaia Gunean
- Mondragon Taldearen etorkizuneko erronkak, urriaren 6an, Deusto Business Schoolen
- NAKen batzar nagusia, urriaren 10ean, Quebecen.
- Kooperatiben Nazioarteko III. Goi-bilera, urriaren 10-13an, Quebecen
- Nafarroako Gizarte Ekonomiaren Eguna, Nafarroako CEPESein, azaroaren 4an, Taxoaren
- Zahartzearen Balio Soziala, azaroaren 4an, Eusko Ikaskuntzan
- Fernando San Martin GFAko Garapen Lankidetzarako zuzendaria, garapenerako lankidetzeta-planean, azaroaren 9an, GFAn
- Emakumeak kooperatibismoan, EuskalIT kalitatearen asteen, azaroaren 15ean, EJren Bilboko egoitzan.
- Deusto Business Schoolen urteurrena, azaroaren 16an, DBSn
- Parte-hartzea Gipuzkoako enpresan, azaroaren 18an, GFAn
- Txemi Cantera saria, azaroaren 24an, Carltonen
- AGINTZARI KOOP.Eren XXV. Urteurrena, azaroaren 29an, BBK Salan
- Europa Foruma Markel Olanorekin, azaroaren 30ean, Ercillan
- SSI Taldearen XXX. urteurrena, abenduaren 1ean, Simbyn
- Euskararen Nazioarteko Eguna, abenduaren 3an, Guggenheimen
- LKS ABOGADOS KOOP.E.ren inaugurazioa, abenduaren 13an, Bilbon
- Europa Foruma, Mario Icetarekin, abenduaren 14an, Ercillan
- 2016ko Euskadiko Berrikuntzaren Gida, abenduaren 20an, Bilbon
- Gizarte zibilarentzako harrera, abenduaren 22an, Lehendakaritzan.
- Maria Jesus San Jose Lan eta Justizia sailburua, abenduaren 28an, EJn

8.7. LANKIDETZA MUNDUKIDEREKIN

KONFEKOOPEK laguntza eta babesak eskaintzen dio MUNDUKIDE Fundazioari, hirugarren munduko herrialde esaten zaien horietan kooperatibismoa sustatzeko ekintzak egin ditzan. Horretarako, bere urteko emaitzen % 1ari dagokion laguntza ematen dio.

MUNDUKIDek Kooperatiben Nazioarteko Egunean antolatu zuen II. Lasterketa Solidarioa ezagutzera emateko lanetan parte hartu zuen KONFEKOOPEK. Kooperatibisten bihotz taupaden oihartzuna hegoaldeko herrialdeetara helaraztea da lasterketaren helburua. 7 kilometroko ibilbidea dauka eta taldetan parte hartu behar da.



KONFEKOOP



KONFEKOOP



EUSKOOP

KONFEKOOP

IKUSKATUTAKO KONTUAK

BALANTZE LABURRA

AKTIBO EZ KORRONTEA	686.990,89
Ibilgetu ukiezina	0,00
Ibilgetu materiala	274.952,83
Bazkidetutako eta Taldeko enpresetan epe luzera egindako inbertsioak	275.299,40
Epe luzerako finantza-inbertsioak	136.738,66
AKTIBO KORRONTEA	1.815.718,52
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	268.554,77
Zerbitzu eskaintzagatiko bezeroak	16.901,02
Beste hainbat zordun	40.471,02
Diru-laguntzengatiko beste zordun batzuk	211.182,73
Epe motzeko finantza-inbertsioak	1.348.530,00
Eskudirua eta antzeko beste aktibo likidoak	198.633,75
AKTIBOA GUZTIRA	2.502.709,41

ONDARE GARBIA	2.056.068,60
Fondo propioak	2.046.671,87
Erreserbak	1.985.042,50
Ekitaldiko emaitza	61.629,37
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	9.396,73
PASIBO EZ KORRONTEA	286.243,28
Kooperatiben Azkentzeen Ezarpen Fundoa	151.280,14
Epe luzeko zorrak FAECengatik	134.963,14
PASIBO KORRONTEA	160.397,53
Epe motzeko zorrak FAECengatik	48.530,00
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	111.867,53
Hornitzaileak	16.280,56
Hornitzaileak, bazkidetutako eta taldeko enpresak	90.834,21
Beste hainbat hartzekodun	125,27
Beste zor batzuk Administrazio publikoekin	4.627,49
PASIBOA GUZTIRA	2.502.709,41

IRABAZIEN ETA GALEREN KONTU LABURRA

USTIAPENAREN EMAITZA	57.920,24
Negozio-kopuruaren zenbateko garbia	138.461,58
Jarduera propioen diru-sarrerak	84.461,58
Zerbitzuen eskaintza	54.415,82
Jarduera propioen egozpenak	-29,00
Egozpenen diru-sarrerak	97.842,52
Egotzi beharreko gastuak	-97.871,52
Kontsumoak	-3.319,45
Ustiapenaren beste diru-sarrera batzuk	166.152,98
Ustiapenaren diru-laguntzak	137.092,98
Programa berezien diru-laguntzak	29.060,00
Langile-gastuak	-64.841,15
Ustiapenaren beste gastu batzuk	-157.076,32
Kanpoko zerbitzuak	-19.886,44
Zerga-ordainak	-293,05
Dedikazioa	-55.506,93
Ordezkaritza	-23.306,88
Afiliazio kuotak	-7.725,01
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-25.032,14
Programa berezien beste gastu batzuk	-25.325,87
Ibilgetuaren amortizazioa	-21.844,22
Ibilgetu ukiezina	0,00
Ibilgetu materiala	-21.844,22
Finantza ibilgetuaren eta beste batzuen diru-laguntzen egozpena	0,00
Egotzi beharreko diru-laguntzen diru-sarrera	359.883,02
Egotzi beharreko diru-laguntzen gastua	-359.883,02
Beste emaitza batzuk	0,00
FINANTZA-EMAITZA	3.709,13
Diru-sarrera finantzarioak	3.709,18
Finantza-gastuak	0,00
Kaltea eta emaitza finantza-tresnen besterentzeengatik	0,00
ZERGEN AURRETIKO EMAITZA	61.629,37
Etekinaren gaineko zerga	0,00
EKITALDIKO EMAITZA	61.629,37